

6.-BEZEROEKIKO HARREMANAK

Ezeri ekin baino lehen, bezeroak gure lanaren alde garrantzitsuenetarikoa dira, hori dela eta, hauek erakartzeko estrategia batzuk erabiliko ditugu.

Hasteko, gaur egungo sare sozialak erabili ahalko ditugu bezero berriak gure APP-ara erakartzeko, izan ere, gaur egun ia pertsona guztiek dute sare sozial bateren bat eta horregatik ailegatuko ahal dugu pertsona gehiagori. Erabiliko ditugun sare-sozialak hauek dire: Whatsappeko kanalak, Instagram, TikTok, Telegram, Facebook eta YouTube.

Hau gutxi izango balitz, laguntza pertsonala eskaini ahalko dugu gure APP-aren bidez, APPean izango dugulako egiaztatutako profil bat non mezuak bidali ahalko dituzte haien zalantzak argitzeko edo arazoak izatekotan, lagundu ahal izateko arazoaren kudeaketan. Honen aritik, laguntza pertsonala izan ahalko dute baita gure dendan ere.

Jarraitzeko, APP-aren barruan gehien errepikatzen diren galdera (FAQs) galderak argitzeko chat-bot bat izango dugu, zure galdera ez badago galdera sorta horretan gurekin harremanetan zuzenki jartzeko Gmail bat izango dugu.

Ez dezagun ahaztu lehenengo erreskatea egiterakoan pentsu-zakua eta animaliak zaintzeko objetuen artean aukeratu ahal dutela. Dena den, aukera izango dute Kiwokon deskontuak izateko ere, %10, 15 edo 20koak. Gure deskontuekin egindako salmentetatik aterako dugu %2 mozkin moduan. Erreskateen arabera emango dira proposatutako deskontuak, gero eta erreskate kopuru handiagoa eginez gero eta deskontu handiagoa izango dute bezeroek.

Argitu behar dugun beste gauza bat zenbat hilabeteetan egongo garen jarraipena egiten animaliei da. Bezeroekin harremanetan jarriko gara jakiteko adoptatu dituzten animalien egoera eta baita *chip* batekin animalien osasuna ondo dagoela ziurtatuko dugu, horrela ziur egongo gara animalia hauek adoptatu duten pertsonak ez dietela animaliei kaltetzen. Animaliak kaltetuko bazuen norbaitek haien profila ezabatuko genuke eta debekatuta izango zuten APP-an beste profil bat irekitzea eta arau hauek ez betetzean polizia edo beste ordenaekin harremanen jarriko ginатеke prozesu hau judizialki gauzatzeko.